



ETXALARKO UDALA

Andutzeta, 15 - 2. solairua - 31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tel.: 948-635005 - Fax: 948-635232
e-posta: udala@etxalar.eus - Web: www.etxalar.eus

ETXALARKO IGERILEKUEN FUNTZIONAMENDU LANAK ESLEITZEKO DEIALDIA (SARRERA KONTROLATU ETA GARBIKETAK EGIN)

2021eko DENBORALDIA

1.- Etxalarako Udalak BI PERTSONA kontratatu nahi ditu igerilekuen 2021eko denboraldirako, SARRERAKO KONTROLA ETA INSTALAZIOEN GARBIKETA EGITEKO.

2.- Izangaiek bete behar dituzten baldintzak hauexek dira:

- Adinez nagusia izatea.
- Euskara menperatzea.

3.- Deialdian parte hartzeko eskabideak udaleko bandoan adierazitako epean aurkeztuko dira udal idazkaritzan, agiri hauek erantsirik:

- Curriculumuma
- Lan eskarmentua

4.- Lanaldia: bi lan txanda izanen dira; lehenengoa, 10:00etatik 16:00etara, eta bigarrena, berriz, 15:00etatik 21:00etara.

5.- Lan kontratuaren iraupena:

- Hasiera: 2021eko uztailaren 1ean.
- Bukaera: 2021eko abuztuaren 22an.

6.- Hilabeteko lansaria 750,00 eurokoa izanen da.

Kontratatuei hileroko ordainsarrietan legezko atxikipenak eginen zaizkie. Gizarte Segurantzako araubide orokorraren arabera, dagokien kotizazioa ordainduko da.

7.- Egin beharreko lanak hauexek dira:

- Instalazioak goizeko 12:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte irekiak edukitzea, jai egunak barne.
- Sarrera: COVID-19a dela eta, nahitaezkoa izanen da sartzen diren pertsona guztien izen-abizenak eta telefonoa apuntatzea (informazio hori beharrezkoa da, kutsadura-agerraldiren bat gertatuko balitz).

Horretarako, prestatuko den taula bat bete beharko da egunero, aipatutako datuak sartzearen.

- Baimendutako gehieneko edukiera une oro kontrolatu beharko da; edukiera betez gero, instalazioko sarbideak itxi egingo dira, barrualdean plazak libratzen diren arte.
- Instalazioaren garbiketa eta desinfezkoa:
 - o Instalazioa (komunak, aldagelak, etab.): egunean behin garbituko da, instalazioa itxita dagoenean, eta dagokion erregistroa egingen da (horretarako prestatuko den taula bete beharko da).
 - o Eskuekin maiz ukitzen diren eremuak: egunean behin garbituko dira, eguneko irekiera-aldiaren erdialdera, itxi beharrik gabe eta dagokien erregistroarekin.
 - o Kanpoaldeko lanak: igerilekuko ontziak hustu eta garbitu, mahaiak eta bankuak dauden ingurua garbitu, eta, oro har, ongi funtzionatzeko behar den guztia egin.
- Aldagelen zerbitzuaz arduratzea.
- Azaldu beharreko edozein iradokizun edo berrikuntza Udalari jakinaraziko zaio. Udalak, bidezko iruditzen zaion maiztasunarekin, zerbitzua nola ematen den ikuskatuko du.
- Osasun egoera dela eta, aldaketak egin behar badira, betebeharrak egokituko dira neurri berriei ere.

8.- Indarrean den legerian ezarritako kasuez gain, Udalak kontratua desegiten ahal du, bere ustez hitzartutako baldintzak betetzen ez badira edo zerbitzua txarra bada, eta kontratatuek ez dute inolako kalteordainetarako eskubiderik izanen.

9.- Baldintza-plegu honek sor dezakeen edozein zalantza Etxalarko Udalak erabakiko du.

Etxalarren, 2021eko ekainaren 11n.

Alkatea,



A handwritten signature in blue ink, consisting of several overlapping, stylized loops and lines.

ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak:

IFZ:

Helbidea:

Herria:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Honen bidez ADIERAZI NAHI DUT:

- Etxalarko igerilekuetan SARRERAKO KONTROLA ETA INSTALAZIOEN GARBIKETARI buruzko deialdiaren berri izanik, lan hori egiteko baldintzak betetzen ditut eta ez nago administrazio publikoaren edozein lanpostutarako ezgaiturik eta hartatik bereizia.

Etxalarren, ____/_____/__(e)an.

Sinadura: